


CIC NANOGUNE:

TransferPlan: Nanozientzia etorkizuneko enpresarentzat




Ainara Garcia Gallastegui
a.garciagallastegui@nanogune.eu
943574013
<https://www.nanogune.eu/eu>

 **Jarduera:** Nanozientziako ikerketa kooperatiboko euskal zentroa, Euskadi nanozientziako ikerketaren abangoardian jartzea helburu duena, gizarteak nanoteknologia-aukera zabala izan dezan beharrezko baldintzak sortzen lagunduz.

 **Sektorea:** Ikerkuntza eta Garapena

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 110

 **Lokalizazioa:** Tolosa Hiribidea 76, 20018, Donostia - San Sebastián, Gipuzkoa

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Izan ere, teknologia transferitzeko plana aldatu eta zentroko dinamikekin bat egin izanak (erakunde laguntzaileekin egindako bilera, industria-foro sektorialak, etab.) ikerketaren emaitzen ustiapena sustatzea ahalbidetu du, bai eta enpresek (euskal enpresek eta nazioartekoek) teknologia disruptiboak eta inpaktu handikoak garatu eta xurgatzea ere, horietan lehiakortasuna hobetuz. Horretarako, ezagutza identifikatu, barneratu eta garatu behar da, eta enpresan sartzeko behar da, produktu, prozesu edo negozio berriak lortzeko.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

El Centro de Investigación Cooperativa en Nanociencia CIC nanoGUNE nace en 2006 con la misión de llevar a cabo investigación de primer nivel para contribuir al desarrollo competitivo del País Vasco.

En este sentido, la transferencia de la tecnología desarrollada en el centro a otros centros tecnológicos y especialmente, a las empresas vascas, es una actividad clave del centro, cuyo desempeño se mide a través de una serie de indicadores (proyectos con empresas, patentes, empresas de nueva creación, etc.)

En 2019, se intensifica la actividad en transferencia de tecnología con la contratación de la actual responsable de Transferencia de Tecnología, con experiencia tanto en el ámbito de conocimiento como en actividades de gestión de proyectos estratégicos y transferencia de tecnología a nivel internacional. Ese año, bajo el liderazgo de la dirección del centro, se define un plan con acciones estratégicas al que se destinan importantes recursos para su despliegue e implementación, concretamente los 10 grupos de investigación de CIC nanoGUNE y sus responsables que se coordinan con la dirección de transferencia de tecnología. En este sentido, se llevan a cabo dinámicas de reflexión con los responsables de los Grupos de investigación y con los especialistas que forman parte de los servicios externos de CIC nanoGUNE.

Cómo parte fundamental del despliegue, se refuerza la red de colaboración del centro a nivel local, compuesta por los principales clústeres de Euskadi, las instituciones vascas, la agencia de desarrollo empresarial de Gobierno Vasco SPRI y la Alianza Vasca para la I+D, Basque Research & Technology Alliance-BRTA. Además, se generan colaboraciones con ASTP (entidad de acreditación internacional en materia de tecnología) y asociaciones a plataformas europeas. El objetivo final es diseñar un catálogo de tecnologías por sector (con la colaboración de consultoras y diseñadores gráficos) que se hace llegar a las empresas a través de la red de colaboración y con el apoyo de campañas de marketing y divulgación. Otro canal para la incorporación de nuevas tecnologías con impacto en las empresas ha sido promover estancias de investigadores en ellas y su posterior contratación.

La implementación del plan ha supuesto duplicar la cartera de clientes privados y cerrar 11 licencias de patentes en 2 años, aumentando la facturación y consolidar las spin-off del centro, además de la repercusión tanto a nivel local como internacional, con invitaciones para divulgar la buena práctica en congresos internacionales y locales.

De cara al futuro, se quiere incrementar la facturación en la CAPV y desarrollar proyectos de envergadura, concretamente con el clúster de salud- Basque Health Cluster.

Aurrekariak

2006an eratu zenetik, CIC nanoGUNE nanozientziaren arloan nazioarteko erreferentziatzko ikerketa-zentro gisa ezarri da. Teknologiaren transferentzia izan da beti zentroaren helburu nagusietako bat, eta horren erakusgarri dira 6 spin-offak, 2009-2019 aldian eraturako enpresa berriak. Hala ere, 2019an identifikatu da beharrezkoa dela nanozientzia euskal enpresetara gehiago hurbiltzea, inbertsioaren eta ikerketaren eta garapen teknologikoaren emaitzen inpaktu handiagoa lortzeko.

Erronka

Sustatu nahi den teknologia transferitzeko jardueraren barruan, erronka nagusia da nazioarteko erreferentziatzko korporazioekin lan egitea, inpaktu handiko teknologia xurgatzea eta euskal enpresa bultzatzea, teknologia disruptibo hori txerta dezan eta horrek lehiatzeko abantaila sor dezan. Horretarako, beharrezkoa da kanpoko ezagutza eta teknologia identifikatzea, barneratzea eta garatzea, eta enpresa-ehunera modu egokian hurbiltzeko gai izatea, teknologia horiek produktu, prozesu edo negozio berrietan are gehiago garatu eta ustiatzeko.

Ekintzak

1. 2019an, Teknologia Transferitzeko egungo arduraduna sartu zen. Nazioartean (Erresuma Batua, Italia) esperientzia handia du Bio-Nanozientzien arloko teknologiaren kudeaketan eta transferentzian.
2. Urte berean, Zuzendaritzak transferentzia-plan berria definitu zuen, 4 ekintza estrategikotan banatuta.
3. 2020an, bezeroen zorroa handitzea eta zentro-enpresa harremana sustatzea helburu duen lehen ekintza ezarri da, zentroan garatzen diren eta enpresan ezartzen diren proiektu oso berritzaileak bultzatuz. Horretarako, transferentzia-ahalmena duten teknologiak identifikatzen dira, eta sektoreka teknologien katalogo bat diseinatzen da, enpresara egokitutako hizkuntza eta formatuarekin. Gainera, ustiapeneko arlo/sektore estrategikoak eta lankidetzak sortzeko funtsezko klusterrak identifikatzen dira. Azken urratsa klusterren foro sektorialetan teknologien katalogoa zabaltzea da, informazioa interes-taldeetara irits dadin.
4. 2020tik 2022ra bitartean, 2. ekintza estrategikoa garatu da, kualifikazio handiko giza kapitala CIC nanoGUNEtik enpresara transferitzea

helburu duena. Kontratazioa sustatzen duten enpresekin egindako proiektuei lotutako langileak dira.

5. Aldi berean, adierazleak monitorizatzeko aukera ematen duen kudeaketa-sistema egokitu bat ezartzen da, eta komunikazio-plan egoki bat diseinatzen da, komunikazio- eta dibulgazio-kanpainekin, eskaintza teknologikoa azken bezeroari helarazteko funtsezko tresna gisa.

Lortutako emaitzak

Planaren ezarpenari esker, honako emaitza hauek lortu dira:

- Zentroko bezero pribatuen zorroa bikoiztea, EAEko, Estatuko eta nazioarteko enpresek osatua (Intel, FEI, Fagor, Imasmed, Attocube, Balenciaga...).
- Emaitzak ustiatzea teknologiak babestuz, Europako patenteak eskatuz eta ondoren hirugarrenei lizentzia emanez. CIC nanoGUNEK 27 patente-familia ditu gaur egun, eta horietako 18 enpresatan lizentziatuta daude ustiatzeko. Azken bi urteetan 11 lizentzia-kontratu berri itxi dira, eta lizentziadunak tokiko, estatuko eta nazioarteko enpresak izan dira.
- Ondorioz, patenteen lizentziagatiko fakturazioa hamar aldiz biderkatu da azken bi urteetan.
- 6 ikertzaile transferitu dira euskal enpresetara.
- Zuzeneko emaitza gisa, zentroko 6 spin-offen fakturazioa finkatu da.
- Nazioarteko aitortpena lortu da, 2022an Fraunhofer Institute-rekin INAM Tech Transfer Event Europako ekitaldia koordinatzean, zentro-enpresa Teknologiaren Transferentziarekin lotuta.
- Gainera, prentsan hainbat albiste argitaratu dira eta jardunbide egokia azaltzeko hitzaldietarako gonbidapenak jaso dira (Udako Ikastaroak, Donostiako Sustapena Jardunaldia), baita beste euskal ikerketa-zentro batzuetako kontsultak ere.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Ondasunak ekoiztea eta zerbitzuak ematea, Berrikuntzaren Kudeaketa.

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Ainara Garcia-Gallastegui (Teknologia Transferentziaren arduraduna, CIC nanoGUNE)

"Transferentzia Plan eraginkor batek aukera ematen du CIC nanoGUNE bezalako ikerketa-bikaintasuneko zentro batek ekonomian eta garapen teknologiko eta industrialean duen eragina maximizatzeko".

Ian Young (Intel Corporation)

"CIC nanoGUNE- Intel aliantzak zeregin garrantzitsua izan dezake ordenagailuen logikan eta memorian espintronikak dituen aplikazioetarako iraultzan. "

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★☆☆☆☆

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆☆

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★☆☆☆

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆☆

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆☆

Aintzatespena: ★★☆☆☆